

## JARDUERAK

Beharrezkoa da zenbait jarduera burutzea, horrela, balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko, hau da, edozein negozio eredu aurrera eramateko. Funtsezko jarduera hauek sailkapen bat jarraitzen dute: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produktzio jarduerari dagokionez, prozesu ezberdinak bereizten dira; produktuaren diseinua, kantitate jakin batzuk ekoiztea, kalitatea kontuan hartzea eta entrega kudeatzea.

Diseinuari dagokionez, diseinu grafikoan aritzen diren enpresa desberdinei eskatuko genieke birtualki lehen marrazkia egin dezaten. Gero, egokien iruditzen zaigun prototipoa aukeratuko genuke eta bukatzeko, tamaina egokira moldatuko genituzke inprimatzerakoan arazorik ez edukitzeko.

Produktua kantitate jakin batzuetan egiteari dagokionez, garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen jarduerak identifikatu eta egitea, eta horrela beharrezko ditugun jarduerak eta egin ditugunak, beste enpresa bati egitea eskatu beharko dizkiogu.

Entregari dagokionez, sare sozialen bidez argitaratu eta web orriaren bidez salduko genituzke. Horretarako, herriko gazteek gure sare sozialen berri direla ziurtatu beharko genuke. Horrez gain, diskoteka martxan egongo den egunetan sarrera batzuk geratuko lirateke fisikoki bertan saltzeko.

Arazoak konpontzeari dagokionez, hemen aritzen diren zerbitzu aipagarrienak ospitaleak, aholkularitza etab dira. Baina gure kasuan laguntza hori beste modu batean ematen dugu, konkretuki, gazteak bakarrik sentitu ez daitezen lagun berriak egiteko aukera ematen dugu, horrela gazte hauen ongizatea hobetuz eta neurri batean ere herriko gazteak batuz elkarbizitza hobetzeko.

Plataforma eta sareko jarduerari dagokionez, plataforma teknologiko eta internet bidezko enpresak dira nagusi. Hemen, hainbat jarduera bereizi ditzakegu: plataformaren gestio, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea besteak beste. Hortaz, jarduera hauetan aritzea ezinbestekoa izango da gure sare sozialak eta web orriak ongi funtziona dezaten.

Bukatzeko, pentsatzen dugu oso garrantzitsua dela enpresaren barruan egin beharreko jarduerak identifikatzea eta egitea, izan ere, laguntza batzuk enpresarentzako kaltegarriak izan daitezke, beraz, azpikontratazioak egiteak konpentsatzen digun edo ez baloratu beharko dugu.